



PRENTSA-OHARRA

SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOAK KATEDRALEKO ESTALKIAK ZAHARBERRITZEKO LANAK AMAITU DITU ETA BALKOI BEGIRATOKI BAT AURKEZTU DU NABE NAGUSIKO TEILATU ARTEAN

- Obra horiei esker, ura husteko sistema osoa berrantolatu da, zuzeko egiturak eta katedrala babesteko isolamendu termikoa hobetuz.
- Dorrera egiten den bisitan, balkoi-begiratoki bat izango da, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat ere irigarria dena, eta gangen goiko aldea eta erdiko nabearen estalpeko espazioa ikusi ahal izango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 25ean.- Santa Maria Katedrala Fundazioak gaur aurkeztu ditu nabe nagusiko estalkia zaharberritzeko lanak eta balkoi begiratokia, nabe horretako teilatu arteko espazioa ikusteko aukera emango duena.

Aurkezpenaren buru izan da Arabako Ahalduen Nagusia, Ramiro González, eta bertan izan dira Eusko Jaurlearitzako Kulturako sailburuordea den Andoni Iturbe eta Eusko Jaurlearitzako Kultura Ondarearen zuzendaria den Urkiri Salaberria. Halaber, bertara hurbildu dira Sonia Diaz de Corcuera Gasteizko Udaleko Kultura zinegotzia eta Carlos Garcia Llata Gasteizko Elizbarrutiko bikarioa.

Zaharberritzea

Katedraleko estalkiak [zaharberritzeko prozesua](#) 2015ean hasi zen, alboko nabeetako estalkiak zaharberritzearekin. Handik urtebetera, arkupearen estalkiak hasi zituzten lanak, eta 2018an, berriz, buruko estalkietako lanen txanda izan zen. Pandemiaren ondoren, goiko estalkietan hasi ziren lanean, eta bi fasetan banatu zituzten: lehena, transeptua birgaitu zuena, eta bigarrena, erkiko nabeko estalkietara bideratua, 2024an amaitu dena. Modu horretan, Santa Maria eraikinaren goiko espazio osoa berreskuratzeko prozesua amaitu da.

Proiektu bakoitzak ezaugarri propioak izan dituen arren, kasu guztietan alderdi komun batzuk izan dira. Goiko aldeak harlangaitzez eta hargintzaz finkatu eta indartu dira. Lehendik zegoen

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - 674 02 97 99 T +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus

zurezko egitura nagusia kontserbatu egin da, betiere kontserbatzeko egoerak horretarako aukera eman badu. Horren ganean egurrezko gapirioak jarri dira. Horietan guztietan hiru geruzako taula bat sartu da, tartean isolamendu ekologikoarekin. Era horretan, gangen babes higrotermikoa (temperatura eta hezetasunarena) hobetu da, haien narriadura atzeratzearekin batera. Teilatuetan, teila berriak jarri dira beheko aldean (kanal-teila) eta egoera onean zeuden teila zaharrak goiko aldean (babes-teila).

Ekintza horiekin guztiekin ura husteko sistema osoa berrantolatzea lortu da, zurezko egiturak eta katedrala babesteko isolamendu termikoa hobetuz.

Balkoi begiratoki irisgarria

Gaur aurkeztu dituzte erdiko nabearen estalkia zaharberritzeko amaitutako lanak. Bertan, **balkoi begiratoki** bat jarri dute, **mugikortasun murriztuko pertsonentzat irisgarria**, dauden espazio-aukeretara egokituta. Modu horretan, gangen goiko aldea eta erdiko nabearen teilatu arteko espazioa ikus ahal izango dira.

Espazio berri hori Dorrera egingo diren bisitetara gehituko da, eta katedrala eraikitzekeo sistemaren ikuspegi paregabeaz gozatu ahal izango da. Horrela, Santa Mariako [bisiten edukia](#) aberastuko da.

Estalkiaren zaharberritze-lanak irudietan



FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - 674 02 97 99 T +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus



Nabeko estalkiko obrak

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - 674 02 97 99 T +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus



Taula isolamenduarekin, arrastelak, teila berriak behealdean (kanal-teila) eta berrerabili direnak goiko aldean (babes-teila)



Egungo egoera, goiko estalkiak zaharberritu ondoren

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - 674 02 97 99 T +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus